2025ID170012

**LEZOKO BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUAK KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.**

## 1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen helburua Bekoerrota Kiroldegia eta Altzate Igerilekuak kirol instalazioen (hemendik aurrera BK-AI) kudeaketa integrala genero-ikuspegiarekin da.

Zerbitzu publikoak kontratatzeko kontratua izango da, zerbitzu kontratu modalitatean. Kontratua adjudikaziodunaren arrisku eta menturara exekutatuko da.

Zerbitzu publiko horren kudeaketak, ondorengoa jasotzen du:

1.- Esleitutako zerbitzuak burutzeko kudeaketa lanak.
2.- BK-AIetako kirol zerbitzuen eta kirol eremuen ustiapena.
3.- Instalazio horien mantentze-lan integralak, kontrola, funtzionamendua eta garbiketa.
4.- Lezoko Kirol Orientazio Zerbitzuaren ustiapena.
5.- Lezoko bizikleten mailegu zerbitzuaren (muittuBIZI) ustiapena.

Aipatutako kudeaketa (ustiapen) lanak, hortaz, honako hauek izango lirateke: zerbitzu eta administrazioko langileak kontratatzea; instalazioak, makinak, altzariak eta tresneria zaindu eta mantentze lanak egitea; instalazioen garbiketa; harrera eta idazkaritza; kirol instalazioak ustiatzea.

I eranskin gisa doa instalazioen planoa azalera erabilgarriekin eta II eranskin gisa ekipamenduaren inbentarioa.

Lehiaketa honetako oinarriez gain, BK-AI instalazioen erabilera araudia (III eranskina; Osoko bilkurak onartua 2021-03-25), urtero onartzen diren Lezoko Ordenantza fiskalak (IV eranskina), Bekoerrotako autoprotekzio plana (V eranskina), Altzate Igerilekuetako Autokontrol plana (VI eranskina) eta lizitatzaileak eginiko kudeaketa proiektuak arautuko dute.

Gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura izango dira (pertsonal gastuak, zergak, kontribuzioak eta kontratari dagozkion bestelako gastuak; hala nola, jantziak, tresna espezifikoak, mantentze-lanetarako tresna txikiak eta bestelako materialak; telefonoa, ura, konponketa espezializatu, kanpo mantentze-kontratu eta eraikina mantentzeko gastuak) honako hauek ezik:

- Udaleko kirol instalazioetako zuzendariaren bulegoko telefonoa eta fotokopiagailuaren mantenua.
- Lapurreta kontrako detekzio sistemaren mantentze kontratua (2.9 atalean jasotzen diren baldintza eta mugekin).
- Suteen aurkako elementu aktiboen mantenu eta detekzio mantenu kontratuak (2.9 atalean jasotzen diren baldintza eta mugekin).
- Desfibrilagailuen alokairu eta mantenu kontratua.

Maila estrukturaleko esku-hartze handiak udalaren ardura izango dira besterik adosten ez den bitartean.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratu honen legezko eta kontratuzko obligazioak betetzeko.

Era berean, hari dagokio BK-AI erabiltzeko finkatuko diren diru kopuruak jasotzea erabiltzaileengandik.

Lezoko Udalak Bekoerrota Kiroldegian bulego bat izango du, horren mantentze gastuak (garbiketa, konponketa txikiak e.a.) enpresa adjudikaziodunaren kargura izanik aurretik aipatutako telefonoa eta fotokopiagailuaren mantenua ezik, udalaren kargura izango direla.

Kontratu honen exekuzioa, 2026 urtean hasiko da, kontratua sinatu eta hurrengo egunean. Udalak jarraipen zuzena egingo du, adjudikazioduna eta aurreko enpresaren artean koordinazio lanak eman daitezen, beharrezkoak diren bilera guztiak antolatuaz. Adjudikaziodun berriak bere egin beharko ditu eta bermatu beharko du ustiaketa berria hasterakoan indarrean dauden programa, jarduera eta erabiltzaileekiko konpromisoak (hiruhileko ikastaroak, alokairu luzeak adb.). Hauetako bakoitzaren amaiera epeak eten egingo du betebehar hau.

## 2. KUDEAKETA ZERBITZUA: BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUEN KUDEAKETA INTEGRALA.

Kirol zerbitzuen kudeaketa integrala izango da. Ondoren datorren zerrendaren balioa ez da mugatzailea, zerrendatzailea baizik.

- Kudeaketa ekonomikoa
- Jarduera fisiko eta kirol jardueren zerbitzu programa
- Lezoko Kirol Orientazio Zerbitzua
- Lezoko bizikleten mailegu zerbitzua (muittuBIZI)
- Instalazioetarako sarbideen kontrola eta erabiltzaileen administrazioa
- BK-AI kirol instalazioetako langileriaren kudeaketa
- Instalazioen garbiketa eta mantentze-lan integrala

### 2.1.- Kudeaketa Ekonomikoa

Kudeaketa ekonomikotzat hau hartuko da:

a.- Zerbitzuari dagokion gastuak (langile gastuak, hornidurak, konponketak, kanpainak …) oinarrietan jasotzen den moduan ordaintzea.

b.- Kirol zerbitzuak emateagatik, erabiltzaileei tasak kobratzea (urteroko udal Ordenantza fiskalen arabera).

c.- Bihileko memoria aurkeztea kudeaketa datu nagusiak azalduz. Memoriaren egitura Lezoko udaleko sailarekin adostuko da. Ustiaketa kontuek aurreikusitako defizita konpentsatzeko sehileroko konpentsazioa egiteko, aldikako memoria honen aurkezpena ezinbestekoa izango da konpentsazio hau egin dadin (ustiaketaren lehen konpentsazioa ezik). Egoera bereziren bat antzematen bada, egoeraren azalpen txostena eta kontuak aurkeztu beharko dira ahalik eta lehen.

d.- Behin urtea amaituta, urteko kudeaketa zerbitzuari dagokion memoria ekonomikoa eta jardueraren memoria aurkeztea eta azaltzea. Esleipen honi dagokion negozio unitate honetako galera eta irabazi kontu propio ikuskatuak (auditoria enpresa independente batek egina) aurkeztu beharko dira, beste edozein ustiapenetatik ezberdinduak.

**2.2.- Jarduera fisiko eta kirol jardueren zerbitzu programa**

**2.2.1- Kirol jardueren ustiatzea**

Zerbitzu honen helburua herritar guztiei, erabiltzaile ezberdinen ezaugarri, gaitasun, behar, xede eta motibazioak aintzat hartuaz, zuzenduriko jarduera fisikoen eskaintza gauzatzea da. Adjudikaziodunak aurkeztutako programan jasotako kirol jarduerak hasera batean eta ondoren urtero aurkeztu eta udalak onartutako jarduerak antolatu eta garatuko ditu, eta honako konpromisoak hartuko ditu gutxienez:

a.-Zerbitzuaren funtzionamenduaren ardura osoa.

b.-Burutzea, gutxienez, lehiaketan aurkeztutako jarduera zuzendu eta fitness zerbitzu programa proposamena.

b.1-BK-AI kirol instalazioetan antolatzen diren lehorreko eta uretako jarduera zuzendu guztien koordinazioa. Horretarako bereziki koordinatzaile bat izendatua egongo da. Jarduerak emango dituzten begiraleek beharreko kualifikazio espezifikoa izango dute.
b.2.-Jarduera zuzenduen programa prestatzerakoan kontuan hartuko dira herriko sektore eta adin tarte ezberdinak, pertsonen sexu eta egoerak, saiatuz eskaintza anitza honek herritarren behar eta ezaugarri ezberdinetara egokitu dadila.
b.3.-Hau horrela, lehorreko eskaintzan ziklo jardueraz gain gutxienez erritmo/koreografia motako jarduera bat, jarduera lasaiak motako jarduera bat eta indar-inpaktu altuko jarduera bat programatuko dira eta uretako eskaintzan igeriketako ikastaroez gain beste izaerako bi jarduera.
b.4.- Lezoko udalak emakumeen ahalduntze aldera egiten ari den lanaren ildotik eta hau sendotze aldera, lehorreko eskaintzan emakumeei zuzenduriko eta emakumeentzat bakarrik izango den astean ordubeteko bi saio izango dituen beste jarduera bat eskainiko da ere. Jarduera hau gidatuko duen teknikaria emakumezkoa izan beharko da.
b.5.- Esleipenduna saiatuko da arlo honetan sortzen diren jarduera berriak ezagutzeko eskaintzak egiten eta ikasturtero berrikuntzak programan sartzen.
b.6.-Adjudikaziodunak azalduko du aurkeztutako programan jarduera zuzenduen taldeak martxan izateko gutxieneko eta gehienezko izenemate kopuruak. Taldeak osatuz gero beti

emango da zerbitzua erabiltzaile bat egonez gero; bestetik gehienezko kopurua ezingo da gainditu zerbitzua emateko. Udalak kopuru hauek aldatzerik izango ditu intereseko arrazoiak medio (sustapen berezia, egoera berezi bati aurre egitea…).

b.7.-Jarduera zuzenduetan erabiliko den material guztia esleipendunak jarriko du eta bere ardura izango da ere bertan dagoen materialaren egoera egokia bermatzea eta berrikuntza egiten joatea.

b.8.-Fitness zerbitzua erabilera libreko zerbitzua da; Giharketa eta kardio aretoen dinamizazioan datza zerbitzu hau. Areto hauetan pertsona batek (fitness aretoko begiralea) izango ditu erabiltzaileen gainbegiraketa lanak. Erabiltzaileen portaera egokia dela eta norberaren osasuna eta segurtasuna bermatzen direla gainbegiratzeaz gain aholkularitza eta orientazio lanak burutuko ditu erabiltzaileekin. Bere lana izango da erabiltzaileen entrenamendu errutina fitxak egitea eta erabiltzaile horien jarraipena egitea.

b.9.-Fitness aretoan aste barruan derrigorrezkoa izango da goizez eta arratsaldez begiralea gutxienez hiru orduz egotea tarte bakoitzean eta larunbatean hiru ordu goizez.

b.10.-Fitness aretoan dagoen makinaria udalarena da. Esleipendunaren ardura izango da makinaria honen mantentze egokia egitea eta erabiltzaileen aldetik erabilera behar bezalakoa izatea.

b.11.- Zerbitzu programa honetan derrigorrez KALEAN eman beharreko jarduera zuzenduen eskaintza jasoko da. Jarduera hauek irekiak eta doakoak izango dira, hau da, instalazioetako abonatu zein abonatuak ez direnei zuzenduak, bigarren kasu honetan ezer ordaindu behar gabe. Jarduerak herriko espazio ezberdinetan antolatu beharko dira eta gutxienez astean ordubeteko bi jarduera ezberdin antolatuko dira. Urteko opor garai orokorretan ez da eskaintzarik egin beharko (aste nagusia, gabonak eta abuztua). Kale jarduera programa hau Udaleko kirol sailarekin koordinatu eta adostuko da urtero herriko beharrak eta unez uneko baldintzak kontuan hartuko direlarik.

c.- Esleipendunak urtero (ikasturtero) aurkeztuko dio udalari ikasturte berriari dagokion programa eta udalak berarekin adostu eta onartu ondoren abian jarriko du; era berean jarduera jakin bat aktibatu behar bada urtean zehar udalaren onespena beharko du.

d.-Eskola adineko kirol jarduerak bultzatzeko kanpainak bideratu eta antolatzea, Gipuzkoako eskola kiroleko programan jasotakoak barne (beti ere eta kasu guztietan bete beharko da adin tarte horri dagokion araudia maila guztietan). Eremu hau kontuan izanik, Lezoko Udalarekin elkarlanean, UDA kanpainako jarduerak sustatu eta antolatuko ditu eta igeriketa kanpaina antolatuko du eskola-ordutegian herriko ikastetxeen aldetik egon daitezken eskaerak bideratzeko, dagokion kobrantza eginez zerbitzu honengatik.

e.- Betebeharra izango da proposatu eta aktibatzen diren jardueretan, eskaintza propioa zein udalarekin elkarlanean eskainitakoak, aniztasun funtzionala edota behar bereziak dituzten herritarrek parte har dezaten ere beharrezkoa den begirale osagarria ipintzea; modu honetan, udalaren helburua den aniztasun funtzionala duten herritarren kirol eta jarduera fisikoa ere sustatzeaz gain herritar guztien aukera berdintasuna bermatzearen ildoan sakontzen da (jjff arloan gizarte ekitaktiboa sustatuz). Begirale hauen kostua finantzatzerik egongo da udalari fakturatuz edo kasuan kasu beste entitate batzuen ekarpenak jasoaz.

f.- Gipuzkoako eskola kiroleko araudia betetze aldera eta interferentziak ekidite aldera Oarsoaldea eskualdeko eskola kiroleko programa modu egokian gara dadin, esleipendunak larunbata goizetan ezingo ditu kirol jarduerak antolatu benjamin eta alebin mailetako haurrentzat.

g.-Lezoko kirol klubek entrenamenduak eta lehiaketak egin ahal izan ditzaten behar den koordinazioa eta elkarlana izatea, kudeatutako instalazioei dagozkien modalitateetan eta udalak eska dezaken beste edozeinetan. Udaleko kirola sailak ikasturtero esleipendunari pasako dio entitate hauen behar eta instalazioen okupazio taula.

h.-Elkarlanean arituko da Lezoko Udalarekin eta Oarsoaldeko beste erakundeekin kirol jarduera zabaltzeko egindako ekimen eta kanpainetan.

i.-Oarsoaldeko kirol koordinazio mahaiak aintzat hartutako eskualdeko kirol kluben beharrak edo jarduerak burutu ahal izateko koordinazioa eta elkarlana. Udaleko kirola sailak ikasturtero esleipendunari pasako dio entitate hauen behar eta instalazioen okupazio taula.

j.- Lezoko ikastetxeek gorputz hezkuntzako saioak eta kasuan kasu beste jarduera propioak kirol instalazioetan antola ditzakete, beti ere Lezoko Udalak baimenduta eta eskaera bere bidez bideratuta. Kasu hauetan adjudikaziodunak sortzen diren beharrak koordinatuko ditu eta baliabideak modu egokian eskatzaileen eskura jarri. Udaleko kirol sailak ikasturtero esleipendunari pasako dio ikastetxeen behar eta instalazioen okupazio taula.

**2.2.2- Ur-Sorospena**

a.-Sorospen zerbitzuak zorrotz beteko du erabilera kolektiboko igerilekuetarako indarrean dagoen araudia.

b.- Esleipendunak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak onartutako Altzate Igerilekuetako Autokontrolerako Planean jasotako ur sorosle kopurua mantenduko du, gutxienez.

c.-Sorospen zerbitzua aurrerago deskribatzen diren kirol instalazioak publikoari zabalik dauden orduetan emango da, erabiltzaile mota (klubak, ikastetxeak adb.) edo jarduera mota zein den kontuan hartu gabe.

d.-Beste zerbaitegatik beharrezkoa bada ere (ekitaldi bereziak edo bestelakoak) zerbitzua eman egin beharko da.

e.-Esleipendunak bermatuko du instalazioetan dauden botikinek legediak arautzen dituen gutxienekoak betetzen dituztela eta bertan dauden produktuak iraungi gabe daudela; baita lehen sorospenetarako gailuak egoera onean daudela.

f.-Enpresa adjudikaziodunak, bermatuko du, egoerak egoera, zerbitzuaren prestazioa finkatutako ordutegian.

**2.3- Kirol Orientazio Zerbitzua.**

2025ID170012

Lezoarren artean bizi ohitura aktiboago eta osasuntsuagoak sustatze aldera sortu zuen zerbitzu hau Lezoko Udalak EJko Osasun saila eta Osakidetzarekin elkarlanean. Zerbitzua Muittulezo estrategia eta Gipuzkoako KOZ egitasmoaren barnean kokatzen da. Lezoarren bizitza-portaeran aldaketa eragitea du xede zerbitzu honek; sedentarismotik bizitza aktibora pasa testuinguru ireki batean non kontuan hartuko diren pertsona bakoitzaren mota ezberdinetako baldintzak (sozialak, afektiboak, kulturalak …) eta arreta zuzeneko esku-hartzea izango da ardatza.

Zerbitzua herritarrei irekia da eta udalerriko gune ezberdinetan gara daiteke.

Honetarako, zerbitzu honetako teknikaria alde batetik, sarean lan egiten duten eragile ezberdinekin arituko da elkarlanean programa hau bultzatzeko sortu diren toki eta lurralde mailako batzordeetan eta bestetik herritarrei arreta zerbitzu zuzena eskainiko die, modu zuzenean edo herrian dauden beste baliabideen bitartez pertsona horiek aktibatu ahal izateko, eta herritarrei zuzendutako jarduera fisikoa sustatzeko tokiko programen garapenean lan egingo du udal teknikariarekin batera.

Zerbitzuaren ezaugarriak hauek izango dira:

a.-Toki mailan Udala, Osakidetza (Osasun Zentroa), Osasun Saila eta Hezkuntza komunitateak osatutako batzorde eragilean parte hartuko du zerbitzuko teknikariak.
b.-Zerbitzuak aurretiazko hitzorduaren sistemaz funtzionatuko du. Arreta zerbitzua behar eta egokitasunaren arabera herriko gune ezberdinetan ematerik egongo da. Hori horrela izan arren, kirol instalazioetako bulego batetan kokatuko da zerbitzua hasera batean.
c.-Zerbitzuan lan egingo duen teknikariak 17’5 orduko dedikazioa izango du astero gutxienez (lehiakideek dedikazioa hobetu dezakete).
d.-Jendaurreko ordutegia urtero/ikasturtero Lezoko Udaleko kirol sailarekin batera finkatuko da eta zerbitzuaren hobekuntzarako edo erabiltzaileen beharrak/zitak direla eta, kirol sailarekin adostu ondoren alda daitekeen arren, astelehenetik ostiralera izango da. Goiz edo/eta arratsaldeko ordutegiak eskainiko dira egunen arabera, baina gutxienez egun batean bietako aukera bat egon beharko da herritarren eskura.
e.-Herritar talde ezberdinekin antola daitezken jarduera fisikoa eta bizitza aktibo eta osasuntsua sustatzeko prometan parte hartuko du teknikariak, toki mailan bizitza aktiboaren erreferente izango den aldetik (tipi-topa ekimena adb.).
f.-Orientatzaileak bere asteroko jardunaren bederatzi ordu eta erdi erabiliko ditu aipatutako sustatze prometan. Jardunaren beste zatia herritarrak artatu eta koordinazio, prestaketa eta kudeaketa lan eta proiektu komunitario antolaketa batzordeetan (tokiko eskualdeko zein lurraldekoak) parte hartzera bideratuko da.
g.-Zerbitzua zuzenean ematen duen pertsona Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzietan graduduna izango da.
h.-Orientazio zerbitzua dohakoa izango da, baita zerbitzutik bideratutako KOZ jarduerak.
i.-Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zerbitzuak orientazio zerbitzuen inguruan finkatutako KOZ-Gipuzkoa ereduaren protokoloak jarraituko dira, ahal den neurrian, eta eskatutako datu eta fitxak bete. GFAk eginiko KOZ aplikazioa erabiltzea nahitaezkoa izateaz gain, orientatzaileak

aldundiak egingo dituen ezagutza kolektiboko ekintzetan (EHU ikerketa eta koordinazio bilerak bereziki) parte hartu beharko du.
j.-Herritarrak zerbitzura iristeko bideak ezberdinak dira; modu librean gerturatu daitezke edo beste zerbitzuetatik deribatuak. Zerbitzuaren ardura izango da toki mailan osatuak dauden jarduera fisikoa sustatzeko mahaiko partaide gisa osakidetza, udal gizarte zerbitzuak eta herriko ikastetxeekin deribazio protokoloak adostea
k.-Zerbitzu honen proposamenean, halaber, programaren diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa jasoko dira.
l.-Jarduera fisikoa sustatzeko osatuak dauden tokiko mahaietan, esleipendun enpresaren arduradunarekin adosten den beste edozein ardura izango du teknikariak, beti ere kontratataturiko ordu kopurua gainditu gabe.
m.-Zerbitzua urteko 11 hilabeteetan emango da (800 ordu).
n.-Lehiakideen proposamenak programa ireki zehatz berriak jaso ditzake zein esleipena egin ondoren udaleko kirol sailaren oniritzia badute martxan jarri beharko diren.

**2.3- Lezoko bizikleten mailegu (muittuBIZI) zerbitzua.**

Zerbitzu honek aurrez aurretiko mailegu sistema baten ustiaketan datza. Zerbitzua, arautzen duen araudiaren baitan (VII eranskina) kudeatuko da. Zerbitzuan erabiliko diren bizikletak elektrikoak eta tolesgarriak dira.
Zerbitzuaren mailegu eta informazio gunea Bekoerrotako harrera izango da. Bizikletak Bekoerrota kiroldegian gordeko dira.
Zerbitzuan erabiliko diren bizikletak eta mailegu sistema kudeatzeko software informatikoa udalak jarriko ditu.

Esleipendunaren funtzioak izango dira:

- Mailegu sistema kudeatzea:
    - altak tramitatu genero ikuspegiaren baitan.
    - bajak tramitatu genero ikuspegiaren baitan.
    - maileguei dagokien lan administratiboak burutu
    - bizikleten erabilera eta araudiaren betetze zuzenaren kontrola
    - bizikleten zaintza, mantentze lanak eta konponketak
    - mantentze eta konponketa lanetarako behar den piezen erosketa (koadroa eta bateriak aldatzea udalaren esku gelditukо da).
    - ez betetzeen berri ematea udalean elektronikoki, zehapen espedienteak bideratu ahal izateko
    - eskatzen diren txostenak osatzea (erabilerak, mantentze lanen parteak…)

Laburpen gisa zerbitzuaren ezaugarriak hauek dira:

- Aurrez aurretiko bizikleta mailegu sistema bat da.
- Bizikleta mailegu gunean hartu eta bertan utzi beharko da finkatzen den epearen barruan. Bizikleta mailegatzerakoan bizikletaren giltzarrapoari dagokion giltza emango da; amaitzerakoan bueltatu beharko da.

- Batez ere herritarrei begira antolatutako sistema baina baita ere bisitariek erabili dezaketena (16 urte beteak; famili taldeen erabileran gazteagoak ere).
- Bizikletak herri barruan, Donostia, Oarsoaldeko herrietan eta aipatutakoen herriarteko desplazamenduetarako erabili ahal izango dira.
- Sistemako erabiltzaileek erabiltzaile txartela (birtuala) izango dute (noizbehinkako mailegatzaileen kasuan ez) eta erabilera aplikazio informatiko baten bitartez kudeatuko da.
- Lezoko kirol instalazioetako abonatuek doako erabilera izango dute, abonatuak ez diren Lezoko herritarrak, nahi izanik, ordenantza fiskaletan onartuko den tasaren truke eskuratuko dute urteko erabilera alta eta beste kasu guztietan onartzen diren tasak ordaindu ondoren denbora mugatuko erabilera puntualak egiteko aukera egongo da.
- Udalak beste udal edo entitateekin har ditzakeen akordioen ondorio beste erabiltzaile motak eta ezaugarriak gehitu lirateke zerbitzura.

**2.5.- Instalazioetarako sarbideen kontrola eta erabiltzaileen administrazioa.**

a.-Adjudikaziodunak emandako zerbitzuak, barne hartuko du erabiltzaileei eman beharreko informazioa eta harrera lana irekiera ordutegi osoan, baita eraikuntza eta instalazio eta bertan eskaintzen diren zerbitzu guztiei dagokien arreta ere, zainduko delarik instalazioak behar bezala egotea eta emandako zerbitzuen antolaketa egokia. BK-AIen kudeaketari dagozkion lan administratiboak ere barnean daude, izen-emateak, bazkidetzak, txartelak, alokairuak, sarrerak saltzea… besteak beste.

b.-Lezoko Udalak eskatzen badu, zerbitzu hau beharrezkoa aurreikusten den beste ordutegietan emango da.

c.- Esleipenduna izango den enpresak, plegu teknikoetan jasotako funtzioak bete ahal izateko, udalaren eskutik erabiltzaileen datu trataeraren arduraduna den aldetik datu pertsonalen lagapena jasoko du.

Udaleko Tratamendu Jardueren Erregistroan (TJE) esleipenduna datuen trataera eragile gisa jasoa izango da.

d.-Datuen trataera eragile gisa, izaera pertsonaleko datuak dituen edozein informazio erabili, komunikatu eta uzterakoan esleipendunak une oro alor horretan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, zehazki Datu Pertsonalen babeserako abenduaren 12ko 15/1999 lege Organikoan ezarritakoa, eta era berean ekainaren 11ko 994/1999 EDak onartutako Datu Pertsonalak dituen fitxategi automatizatuetako Segurtasun Neurrien araudia. Ezin izango ditu erabili lortzen dituen datu pertsonalak kontratuan agertzen ez den beste edozein ezertarako, ezta hirugarrenei utzi ere, datu horiek gordetzeko baldin bada ere.

e.-Kontratuko prestazioa amaitu ondoren, adjudikaziodunak erabilitako datu pertsonalak TJEan jasotako epean deuseztatu beharko ditu.

**2.6.- BK-AI kirol instalazioetako langileriaren kudeaketa.**

a.-BK-Alko langileriari (subrogaziodunak (VIII eranskina) edo ez), “BPXport XXI SLU enpresaren eta Lezoko Udalaren menpeko Bekoerrota eta Altzateko kirol instalazioen zerbitzuko langileen arteko hitzarmen kolektiboa” aplikatuko zaie (X. eranskina) eta hau iraungitzean “2023-2027 urteetarako Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol-Instalazioen hitzarmen kolektiboa” aplikatuko litzaieke (IX eranskina). Bi lan hitzarmenetan jasotzen denari jarraituz hitzarmen bakoitzean bestearekiko ematen diren hobekuntzak aplikagarri izango zaizkie langileei.

b.-BK-Alko langile guztiei lan baldintza, lan hitzarmen eta soldata taula berberak aplikatu beharko zaizkie.

c.-Erabiltzaileek argi ikusiko dute instalazioetako langileak bertako langileak direla, eta horretarako esleipendunak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu; langile guztiei jantzi eta segurtasunerako material egokiak emango dizkie, indarrean dauden araudien arabera, eta guztia behar adina aldiz berrituko da, itxura beti egokia izan dadin eta segurtasuna kaltetua ez suertatzeko. Aipatutako jantzietan gutxienez udal imajina azalduko da argi utziaz Lezoko Udalaren zerbitzu batean dagoela erabiltzailea.

d.-Enpresa esleipendunak behar adina langile jarri beharko ditu kontratuaren xedea egoki burutzeko, eta beharrezkoak dituen giza baliabide guztiak kontratatzeko askatasuna izango du. Dena den, adjudikaziodunak bermatuko du kirol eta jarduera fisikoaren arloko unibertsitateko goi mailako titulua duen lanaldi osoan jardungo duen pertsona bat kontratatuko duela; pertsona horrek kirol erakundeen kudeatzaile izaera izango du, zentroaren arduradun edo gerentea izango den aldetik. Pertsona hori gainera, parte hartuko du Kirol Instalazioetako Jarraipen batzordean, Kudeaketa Batzordean eta Kudeaketa Batzorde Sozialean deituak direnean eta izango da enpresaren ordezkari eta hizketakide udalaren aurrean.

e.-Bermatuko du ere, administraritza lanetan aritzeko profil egokia duen pertsona bat izango duela, edo bestela bermatu beharko du lan horiek burutuko direla, eta zehaztu beharko du horretarako barne zerbitzu egokia edo aditua den kanpoko enpresa batek lan horiek egingo dituela, proposamenean jasoko delarik.

f.-Era berean, irekiera orduetan kontrol eta jendearen arretarako langile bat egongo dela bermatuko da, baita sorosle bat ere igerilekuaren kasuan (edo gehiago Altzateko autokontrol planean horrela jasoa balego), eta matxurak konpontzeko zerbitzua 24 ordutan eta urteko 365 egunetan, proposatzen den komunikazio-sistemaren arabera, aukera emango duena, edozein larrialditan, eraikinera joateko gehienez ordubeteko epean.

g.- Arloz arlo adjudikaziodunak honako gutxieneko ordu dedikazioak bermatu beharko ditu, zein memoria edo beste tresna batzuen bitartez justifikatuko diren:

| Arloa | | bekoerrota | altzate |
|---|---|---|---|
| | | | |
| **garbiketa** | orduak urteko | 2572 | 3539 |
| | **guztira** | **6111** | |
| **harrera** | harrera orduak urteko | 2484,79 | 3362,22 |
| | harrera/administrari o./u. | 1600 | |
| | harrera/koordinatzaile o./u. | | 834 |
| | guztira instalazioka | 4.084,79 | 4.196,22 |
| | **guztira** | **8.281,01** | |
| **jarduerak** | orduak urteko | 1321 | 1788 |
| | jarduerak kalean | 110 | |
| | **guztira** | **3.219** | |
| **Sorosleak** | orduak urteko | | 3890 |
| | sorosle/koordinatzaile o./u. | | 610 |
| | **guztira** | **4500** | |
| **GIM** | orduak urteko | 2064,5 | |
| | **guztira** | **2064,5** | |
| **Mantenua** | orduak urteko | | 2329 |
| | **guztira** | **2329** | |
| **Admin** | orduak urteko | **harr: 1592** | |
| | **guztira** | | |
| **Igerikuko koordinatzailea** | orduak urteko | sos 610 | harr: 834 |
| | **guztira** | **156** | |
| **KOZ** | orduak urteko | 800 | |
| | **guztira** | **800** | |
| **Zuzendaria** | orduak urteko | | |
| | **guztira** | **1592** | |

h.-Kontratua sinatu eta hiruhileko epean adjudikaziodunak langileriaren zerrenda aurkeztuko du Lezoko Udalean non jasoko diren langileen izen abizenak, kualifikazioa, lanpostua, dedikazioa, maila profesionala eta soldata baldintzak. Lan taldean edo dedikazio edo baldintzetan aldaketak ematen direnean idatziz jakinaraziko dira. Lezoko Udalak TC1 eta TC2 agirien kopiak eta lan kontratuen kopiak eskatzerik izango du kontratuan zehar.

i.-Langile guztiek bere eginkizunak garatzeko beharrezkoa den gutxieneko titulazioa izan behar dute.

j.- Horretaz gain, esleipendunak langileen formazio jarraitua bermatuko du, bakoitza bere arloan, eta formazio hau jasotzen duen plana jasoko du bere eskaintzan. Alderdi hau baloratuko da irizpide subjektiboen atalean (III irizpidea b atala).

k.-Edonola ere, adjudikaziodunak kirol zerbitzuak emateko kontratatutako langileen gutxieneko titulazioak indarrean dagoen araudira egokituak izan beharko dute, bereziki alor horretarako legeak gaitasun profesionalei buruz ezarria duenerako.

l.-Beteko dira 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa (54/03 berrikuntza); 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen duena (604/2006, 337/2010 eta 899/2016 aldaketak); 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena; eta lanean segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duen gainerako legeria.

m.-Langileak kontratatzerakoan kontuan eduki beharko da Lezoko Udalak finantzatutako eta haren zerbitzurako instalazio bat dela eta, beraz, ahal den heinean herriko edo eskualdeko langileak kontratatzen saiatuko da, betiere esleipendunari beharrezko iruditzen zaizkion baldintzak betetzen badituzte.

n.-Langileriaren EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza eta erabilera gaitasunari buruzkoak baldintza orri hauen 6. atalean eta zehazki 6.1azpiatalean zehazten dira.

o.-Lezoko Udalak kontratuaren indarraldian edo hori amaitzen denean, esleipendunaren langileekin ez du lege edo lan-harremanik izango, ezta beste halakorik ere. Hala, esleipendunaren kontura izango dira lehiaketaren ondorioz sor daitezken betebehar, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

p.-Baldintza orri hauek ematen dituzten eskubideak ezingo zaizkie bere osotasunean hirugarren pertsonei utzi. Zerbitzu emateren bat azpikontratatuko balitz, Lezoko Udalari jakinarazi beharko litzaioke eta honek uzte hori baimendu beharko luke. Nolanahi ere, Lezoko Udalaren aurrean erantzule, adjudikazioduna izango da. Ez da onartuko kontratu honen iraupena gainditzen duen azpi-kontrataziorik egitea.

q.-Greba edo enpresa gatazkarik izanez gero, Lezoko Udalak edo beste erakunde eskudun batzuek ezartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak onartu eta gauzatu beharko ditu esleipendunak.

**2.7.- Instalazioen garbiketa eta mantentze-lan integrala.**

Adjudikazioduna izango da azpiegitura, eraikin, instalazio, altzari eta kirol ekipamenduen funtzionamendu, erabilera eta mantentze txukun eta egokiaren erantzulea, garbi eta egoera osasungarrian mantenduko dituelarik.

Eskatutakoa bermatzeko garbiketa zerbitzurako urteko gutxienez 6.111 ordu eta mantentze zerbitzurako 2329 orduko jarduna osatzeko kontratatuak egon beharko dira bertako langileak.

a.- Garbiketa arloan egin beharreko lanak hauek izango dira gutxienez:

- Zorua eskobatu eta garbitzea.
- Kirol zoladuren garbiketa.
- Altzari eta tresnei hautsa kentzea.
- Komunak eta aldagelak garbitu eta desinfektatzea.

- Komunetako azulejoak sakon garbitzea.
- Kristal, leiho eta manparak garbitzea.
- Barruko fatxada eta kanpoko kristalak garbitzea.
- Egitura eta barruko azalerak garbitzea.
- Igerilekuko hondartzak garbitzea.
- AIetako ur ontzien garbiketa eta desinfekzioa.
- Eraikinen kanpoko fatxadak eta atxikitako kanpoko inguruak garbitzea (terrazak, kiroldegiko sarrera, AIko berdegunea...)

b.-Esleipendunak, bere jarduera hasi baino lehen, garbiketa plana luzatuko dio Lezoko Udalari (lehiaketan aurkezten duenaz gain) non errutinak, aldizkakotasunak eta garbiketa moduak, desinfekzioa, arratoi eta intsektu-garbiketa jasoko diren aurretik aipatutako gune guztietan.

c.-Esleipendunaren kontura izango da zerbitzua emateko behar diren makina, tresna eta produktuak erostea.

d.-Zerbitzuak eta ohiko jarduerak sortutako zaborra gaika bilduko da, udalerrian ezarrita dagoen zabor bilketa sistemaren arabera.

e.-Lezoko Udalak zerbitzu bereziak eskatzerik izango du 24 orduko epearekin. Zerbitzu hauek langile karga berezia suposatzen duenean esleipendunak fakturatzerik izango du.

Mantentze-lanei dagokionez, adjudikaziodunak gutxienez honakoa burutuko du:

f.-Erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezartzeko eta Legionelosi gaitza prebenitu eta kontrolatzeko indarrean dagoen araudia aplikatzea. Osasun sailak eskatutako autobabes plana onartua eta indarrean izango du.

g.-Indarrean dauden bete beharreko araudiek ezarritako legezko mantentze lanak.

h.-Egingo diren lanak instalazioei buruzko araudietan deskribatutakoak izango dira, bai prebentzio izaerakoak, eta bai nahitaezko izaera duten aldiro egiten diren azterketak.

i.-Enpresa esleipendunak industria erregistroak emandako egiaztagiriak izan beharko ditu, edo bestela akreditutako enpresekin lan egin beharko du. Datu hau eskaintzan islatu beharra dago.

j.-Kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatu beharreko legedian aldaketaren bat baldin badago, hain zuzen ere dauden instalazioetan aldaketa partzial edo osoren bat egitera behartzen duena, enpresa esleipendunak idatziz jabetzari instalazioa epeen barruan legezko xedapenera egokitzeko beharrezkoa aldaketak proposatuko dizkio. Aldaketa honek sortzen dituen gastuak jabetzaren kontura joango dira.

k.-Beharrezkoa duten ekipo eta instalazioetan egiten diren legezko mantentze-lan tekniko guztiak agiri tekniko batean zehaztuko dira, eta bertan alderdi horiek guztiak islatuko dira.

l.-Kontsumo, mantentze-lanen eta araudi ezberdinek eskatutako erregistroak egunean eramango ditu eta dagokion liburu edo datu bilketa sisteman jaso eta udalaren esku jarriko ditu.

m.-Instalazio, makinaria eta kirol instalazioetan dauden osagai guztiak gidatu, zaindu eta kontrolatzea.

n.- Alarmak eta larrialdiak zaintzea eguneko 24 orduetan.

o.-Instalazio berrien exekuzioa eta muntai eta desmuntatzeak jabegoak horrela eskatzen duenean.
p.-Eraikuntza guztietan dauden instalazio, makina eta osagai guztien mantentze-lan prebentziozkoak eta zuzentzaileak; horietatik kanpo gelditukо dira bakarrik eraikuntzen egiturak.

q.-Efizientzia energetikoa izango da irizpide nagusia egiten diren maniobra tekniko eta esku-hartzeetan.

**2.7.1. Prebentziozko mantentze lanak**

a.-Aldiro eta era sistematikoan egiten diren lanak, hartarako ezarritako programaren arabera.

b.-Lehiatzen diren enpresek haien eskaintzetan adieraziko dute proposatzen duten prebentziozko mantentze plana zein den, eta zehaztuko dute zein lan egingo dituzten eta zein maiztasunekin egingo diren, eraikuntzetan dauden sistema eta instalazio bakoitzari dagokionez.

c.-Lezoko Udalak enpresa esleipendunari eskainitako plan hori betetzea eskatuko dio.

d.-Prebentzio lanak beharrezko epeetan edo osagai egokiekin ez egiteagatik sortutako edozein matxura enpresa esleipendunak konponduko du batere kargurik sortu gabe Lezoko Udalari, eta kaltetutako osagai guztiak bere kontura joango dira.

**2.7.2. Konponketetarako mantentze lanak.**

a.-Lan hauek bideratuta daude konpontzeko sistema, instalazio edo osagaiak gaizki dabiltzanean, hondatuta daudenean edo matxurak dituztenean, bai zati batean eta bai osorik.

b.-Lan hau araudi hauen arabera garatuko da:

- Matxuraren garrantziaren eta eteten den denboraren arabera gehienez 24 orduko epea emango da, non eta lana egin ezin bada materialik ez delako, beste gremioren baten laguntza behar delako, edo eraikinaren funtzionamenduak hala eskatzen duelako.

- Esleipendunaren kontura joango da eskulana eta ordezkatu beharreko materiala.

### 2.7.3. Makinen ordezko piezak eta neurketarako ekipoak

a.-Erabiliko den materiala esleipendunak jarriko du, alegia instalazioetako ekipoetan hondatutako material eta piezen ordezkoak.

b.-Esleipendunaren kontura joango dira aldatutako instalazioak berritzeko, obra berriak egiteko, instalazioak araudira egokitzeko eta kontratua sinatu aurretik zeuden hausturak konpontzeko piezen hornidura eta instalazioa; Lezoko Udalaren kontura joango da materialen kostu ekonomikoa, udalak aldeko txostena egiten badu.
c.-Enpresa esleipendunak egitarau bat egingo du, eta bertan jasoko ditu gutxieneko stock-a eta biltegian izan beharreko osagai bakoitzaren kopuruak.

d.-Material guztiak gutxienez instalatutakoen parekideak izango dira kalitate eta ezaugarrien aldetik.

e.-Arrazoitua egonik, marka edo modeloa aldatu behar badira, instalatu aurretik esleipendunak Lezoko Udalaren onespena eskatuko du.

f.-Esleipendunaren kontura joango da kiroldegiko lokaletan izatea kontratuaren xede diren funtzio guztiak egoki betetzeko makinaria, lanabesak, tresnak, neurtzeko aparailuak eta beharrezko gainontzeko baliabide osagarri guztiak.

### 2.7.4. Sistema eta instalazioetan egindako aldaketa eta handitze lanak.

a.-Alor ezberdinetako legedi aldaketagatik sistema eta instalazioetan egin beharreko aldaketa eta handitze lanen berri eman beharko dio esleipendunak Lezoko Udalari, legeak aurreikusitako epeen barruan, eta behar adinako aurrerapenarekin, bestela esleipenduna izango da horren ondoriozko isun, erantzukizun edo zehapenen erantzulea.

b.-Esleipendunak jakiten duenean instalazioen jarduna hobe lezaketen konponketak egin ditzakeela, Lezoko Udalari ahalik eta azkarren atal honetan adierazitako aldaketak nahiz handitze lan horiek proposatuko dizkio, baita kontratuaren xedearekin zerikusia duen beste edozein ere; Lezoko Udalak oniritzia eman beharko dio, eta gainera sortutako gastuak ordaindu beharko ditu.

### 2.7.5. Kontrol eta ikusketa lanak.

a.-Esleipendunak mantentze lanei buruzko liburu bat (edo aplikazio informatiko) bete eta eguneratua izan beharko du, eta bertan azalduko ditu egindako mantentze lan guztiak.

b.-Esleipendunak, kontratua esleitzen denetik bi hilabeteko epean kirol instalazioetan dauden ekipo eta makinariaren inbentarioa egingo du, eta zenbakitu egingo ditu, jabegoak eman dionarekin alderatuz. Ondoren inbentarioa bere ongi-emanarekin Lezoko Udalari emango dio.

c.-Lege arauetara egokitu behar diren lanak homologatutako langileek egingo dituzte, eta araudiek exijitzen dituzten baimen eta egiaztagiri ofizialekin. Beharrezkoa bada, dagozkion liburu ofizialak ere beteko dira, eta bertan ikuskaritzetatik ondorioztatzen diren oharrak idatziko dira.

d.-Esleipendunaren kontura izango da zerbitzua emateko behar diren tresna eta produktuak erostea.

e.-Adjudikaziodunak indarrean dagoen legea bete behar du; eta zehazki lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa eta Gipuzkoako lan hitzarmen sektoriala.

f.-Esleipendunaren ardura izango da langileei beren lanerako egokiak diren arropa eta oinetakoak ematea.

**2.7.6. Instalazioei buruzkoak.**

a.-Aurreko atalean aipatu bezala, Lezoko Udalak II eranskinean jasotzen den ekipamendua utziko du adjudikaziodunaren eskuetan.

b.-Kontratua iraungirik, utzitako instalazioak eta ekipamenduak (adjudikazioaren hasieran inbentarioan jasoak) Lezoko Udalari entregatuko zaizkio kontserbazio ezin hobean eta haietariko bakoitzaren xedeko erabilpenerako egokiro, denboran egin daitezkeen ekipamendu hobekuntzak eta/edo berrikuntzak barne.

c.-Zerbitzu prestazioarekin hasi baino lehen, adjudikaziodunak ikuskatu ahal izango ditu instalazioak eta ekipamendua, haien egoerarekin eta haiek bete beharreko helbururako egokitasunarekin adostasuna espresuki adierazi beharko duelarik, hauteman ditzakeen gabezia guztiak azaldu ahal izango dituelarik, horrela, instalazioak eta ekipamenduak zerbitzuan jarri aurretik, gabezia horien erantzuleek behar diren zuzenketak egin ditzaten.

d.-Azpiegitura, eraikin, instalazio, altzari eta kirol ekipamenduen funtzionamendu eta mantentze lan txukun eta egokiaren erantzule bakarra adjudikazioduna izango da.

e.-Ekipamenduak eta bertako instalazio eta makinerien mantentze lana, indarrean dagoen legedia aplikatuz eta egin beharreko ikuskapenak barne, adjudikaziodunaren kargu izango dira.

**2.7.7. Materiala**

Adjudikaziodunak, BK-AI instalazioen gestioa egiterakoan, beharrezkoa iruditzen zaion eta Lezoko Udalak jarri ez duen materialaren gastu guztiak bere gain hartuko ditu.

**2.8- Hornidurak**

**2.8.1 Gasa**

BK-AI kirol instalazioetako gas hornidura kontratua eta dagokion gastua adjudikaziodunaren kontura joango da.

**2.8.2 Elektrizitatea**

BK-AI kirol instalazioetako elektrizitate hornidura kontratua eta dagokion gastua adjudikaziodunaren kontura joango da.

**2.9- Lapurreta kontrako, Sute kontrako eta Desfibrilagailuen kontratuak.**

Lapurreta kontrako detekzio sistemaren mantentze kontratua, suteen aurkako elementu aktiboen mantenu eta detekzio mantenu kontratuak eta desfibrilagailuen alokairu eta mantentze kontratuak udalak egin eta ordainduko ditu.

Hiru sistema hauetan, hornitzaileak egin ez eta instalazioan egin beharreko mantentze lana txikiak adjudikaziodunaren kontu izango dira.

Adjudikaziodunaren kontu izango dira ere bandalismo edo erabilera okerrarengatik egin beharreko konponketa guztiak, besteen artean su-itzalgailuen birkargak bandalismoko hustuketak egin direnean.

**2.10- Ostalaritza zerbitzua.**

BK-AI kirol instalazioetan tabernarik ez dago. Erabiltzaile edota laguntzaile edo ikusleek edari edo jakiak eskuratzeko gutxieneko zerbitzua izan dezaten esleipendunak vending makinak jarriko ditu bi instalazioetan kirol zerbitzuarekin adostuko den guneetan. Zerbitzua eta bertan jasoko diren edukiak (edari eta jakiak) kirola zerbitzuari aurkeztuko zaizkio martxan jarri baino lehen, udalaren onespena jaso dezaten.

## 3. BK-AI INSTALAZIOEN URTEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA.

a.-Gutxieneko irekiera egutegi eta ordutegia honakoa izango da:

- **BEKOERROTA KIROLDEGIA**:

**NEGUA**:

- Astelehenetik ostiralera: 8:00tik 22:15ra (kirol areto eta esparruak 22:00 arte).
- Larunbatak: 8:30tik 14:00ra eta 15:15tik 20:00ra (partida federatua jokatzerik egongo da 21:30 arte).
- Igandeak eta jai egunak: 9:00tik 13:30ra.

**UDARA**:

- Astelehenetik ostiralera: 8:00tik 21:15ra (kirol areto eta esparruak 21:00 arte).

- Larunbatak: 9:00tik 13:30ra eta 17:00tik 20:00ra.
- Igandeak eta jai egunak: itxita.

- **ALTZATE IGERILEKUAK:**

**NEGUA:**

- Astelehenetik ostiralera: 7:30tik 21:30ra.
- Larunbatak: 8:00tik 14:00ra.
- Igandeak: 9:30tik 13:30ra eta 17:00tik 20:00ra.
- Jai egunak: 9:30tik 13:30ra.

**UDARA:**

- Astelehenetik ostiralera: 8:15tik 21:00ra.
- Larunbatak: 9:30tik 21:00ra.
- Igandeak eta jai egunak: 9:30tik 21:00ra.

b.-Uda sasoia Bekoerrota Kiroldegian uztaila eta abuztua hilabeteek osatzen dute (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, biak barne) eta Altzate Igerilekuetan ekainaren erdialdetik (15an modu orokor batean) irailaren erdialdera iraungo du udako sasoia (urtero aplikazio eguna alda daiteke data horren aste barruko kokapenaren arabera). Beste data guztiak neguko sasoiari dagozkie.

c.-Bekoerrota Kiroldegia, gehienez ere, hamalau egun ixteko aukera egongo da abuztuan, mantentze-lanak egin ahal izateko.

d.-Altzate Igerilekuak, gehienez ere, hamalau egun ixteko aukera egongo da irailean, mantentze-lanak egin ahal izateko.

e.-Kirol instalazioak gehienez honako jai egunetan ixteko aukera egongo da:

- Bekoerrota kiroldegia eta Altzate igerilekuak: urtarrilak 1, urtarrilak 6, irailak 14, eta abenduak 25.
- Abenduaren 24 eta 31 ordutegi berezia izango dute instalazioek, gehienez ere 15:00tan itxiko dutelarik.

f.-Urteko egutegia adjudikaziodunarekin adostu eta finkatuko da urteko azken hiruhilekoa baino lehen. Esleipendunak adostutako egutegi hau udalean aurkeztuko du eta dekretuz onartu ondoren kirol instalazioetan ikusgai egongo da.

g.-Lezoko Udalak egutegia zein ordutegia aldatzeko ahalmena izango du ezinbesteko arrazoien baitan.

## 4. NAHITAEZKO ERRESERBAK.

a.-Adjudikaziodunak nahitaez honakoak erreserbatu beharko ditu Lezoko Udalak bere kirol politika garatu ahal izateko lehentasunezko dituen ondorengo jardueretarako:

a.1-Lezoko udalak bideratuko dituen Lezoko udalerriko ikastetxeek gorputz hezkuntzako klaseak emateko astelehenetik ostiralera eskola-ordutegian (eskaera hau ikasturte hasieran egingo da; aurreikusi gabeko jardueren edo data finkorik gabeko kasuetan eskaera hamabost eguneko epearekin egingo da):

· Pista balioanitza.
· Kiroldegiko frontoia.
· Bi kale igerileku handian edo ikasketa ontziko zati bat.
· Gorputz Hezkuntzako klaseetan erabilia izan daitezken beste espazioak.
· Erreserba horietan ikasleak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

a.2-Eskola Kirola programa garatzeko astelehenetik ostiralera 12:30tik 14:00ra eta 16:30tik 20:00ra saioetarako eta larunbata goizak txapelketa eta topaketetarako, irailaren 15tik ekainaren 15era:

· Pista balioanitza.
· Kiroldegiko frontoia.
· Bi kale igerileku handian edo ikasketa ontziko zati bat, herriko ikastetxeen igeriketa kanpainarako edo/eta EKE taldeentzako.
· Eskola kiroleko programa garatzeko erabilia izan daitezken beste espazioak.
· Erreserba horietan partaideak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

a.3- Lezoko udalak bideratuko dituen Lezoko kirol klub edo kirol elkarte eta eskualde izaera duten Oarsoaldeako kirol klubentzako bere jarduera nagusia aurrera eramateko astelehenetik ostiralera 19:00tik 22:00ra saioetarako eta larunbata goiza, arratsalde eta igande goizak txapelketetarako:

· Pista balioanitza.
· Kiroldegiko frontoia.
· Kaleak igerileku handian (aukeren arabera) edo ikasketa ontziko zati bat.
· Une puntualetan erabiliak izan daitezken beste espazioak.
· Erreserba horietan partaideak erabili beharreko materiala gordetzeko gunea.

b.-Lezoko Udalak baldintza-orri honen xede diren instalazioak erabili ahal izango ditu, kirol jarduerak egiteko, KOZaren beharrak burutzeko, UDA kanpainarako, kultur jarduerak egiteko etab. Horretarako, adjudikaziodunari jakinaraziko dio, aldez aurretik (ahal izanik hamabost egun lehenago), instalazioak eta zerbitzuak erabiliko dituela, egunak eta orduak zehaztuz.

c.-Udalak eskubidea izango du sarrera kobratzeko berak antolatzen dituen jardueretan.

d.-Aurretik aipatutako erreserba horiek Lezoko Udalak, bere intereseko jarduera edo Lezo edo, kasuak kasu, eskualdeko ikastetxe edo klubentzako egiten dituenean, ez dute inolako gasturik

sortuko ez Udalarentzat ez aipatutako beste entitateentzat, jarduerak sor ditzaken pertsonal gaingastuak salbu.

e.-Zerrendatutako erreserba guztiak udalaren ongi-emana beharko dute eta esleipendunari jakinaraziko zaizkio.

f.-Adjudikaziodunak erabiltzaileei jakinarazi beharko die, bazkidetza kontratua sinatzerakoan, baldintza batzuk alda daitezkeela, Udalak interes publikoaren izenean hala erabakitzen badu.

g.-Adjudikaziodunak, bestalde, aukera izango du kirol izaerako duten jarduerak antolatzeko, aldez aurretik Lezoko Udalari baimena eskatuta.

h.-Nolanahi ere, ulertzen da erreserbak instalazio bakoitzari dagozkion kirol jardueretarako egiten direla, Udalak egindako erreserben kasuan izan ezik. Esleipendunaren ezohiko erabilerak Udalari jakinaraziko zaizkio eta aurretik ongi emana jaso beharko dute.

i.-Finkaturiko nahitaezko erreserba horietan hutsunerik suertatuko balitz, adjudikaziodunak erabili ahal izango ditu egoki iruditzen zaion eran aurretik Lezoko Udalari jakinaraziz.

## 5. INSTALAZIOETARA SARRERA.

a.-BK-AI kirol instalazioetara sarrera libre izango da herritar guztientzat, BK eta AI kirol instalazioen erabilera araudia muga bakarra izango delarik, edota haien edukiera eta izaera propioa.

b.-Udaleko Osoko Bilkurak urtero onartuko dituen tasa, prezio eta hobariak aplikatuko dira. Adjudikaziodunak, urtero kirol instalazioetako jarraipen batzordean adostu beharko den proposamena egingo du. Bertan onartzen den proposamena (adostua edo ez) izango da Osoko Bilkurara onarpenerako bidaliko dena.

c.- Oarsoaldeko beste hiru udaletako kirol instalazioetako bazkideak Oarsoaldeako lau udalek sinatu dezaketen akordioen baitan bertan jasotako erabilerak egin ahal izango dituzte. Une honetan ez dago hitzarmenik indarrean; baina badira aurrekariak urteetan eskualde mailako akordioa sinatua egon baita.

d.- Lezoko Udala Mugiment Kirol Txartela proiektuko (XI. eranskina) partaide da. Horren baitan proiektu berean dauden beste herrietako kirol instalazioetako bazkideak Lezoko kirol instalazioak erabiltzerik dituzte Lezoko Udalak finkatutako egun, ordutegi eta zerbitzuetan. Modu berean lezoko kirol instalazioetako bazkideak beste herrietara joan daitezke. Proiektua dinamikoa da eta aipatutako egun, ordutegi eta zerbitzu eskaintza aldatu daiteke. Lezoko udalak esleipendunarekin adostuko du MKT proiektuan zein eskaintza mota egiten den.

e.-Lehiakideek bere proposamena landu dezaten 2021 urtean onartutako BK-AI kirol instalazioen erabilera araudia eta Lezoko Osoko Bilkurak (2025-10-14) onartutako 2026 urteko ordenantza fiskalak atxikitzen dira (III. eta IV. eranskinak).

f.-Udal ordenantzetan jasoa dagoen bezala, hobarien atalean, zerbitzuaren prestazioan eskola kirolak lehentasuna izango du, bere kuota zero izango delarik.

g.-Harreran ikusgai honakoa azaldu beharko da:

- BK-AIen erabilera ordutegia.
- Zerbitzuen prezioa.
- Egiten eta egingo diren zerbitzu eta programak.
- Erreklamazio liburua eskuragarri dagoela.
- Iradokizun kutxa dagoela.

## 6. HIZKUNTZ BETE BEHARRAK

EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokion arlo guztietan, nahitaez bete beharko dira hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, eta besteak beste, udalak 2015eko urtarrilaren 30ean onartutako VII. plangintzaldi (2023-2027) barruko hizkuntz irizpideek diotena.

Esan bezala EAEko hizkuntza arloan dauden lege eta udal araudia (VII. plangintzaldi (2023-2027) barruko hizkuntz irizpideak) diotena bete beharko dira, bai herritarrei, oro har, zuzendutako edozein ekintza antolatzen denean, bai administrazioarekin egiten den edozein harremanetan.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Ondorioz, lanpostu bakoitzaren funtzioaren baitan ezarritako hizkuntza eskakizunak egiaztatu beharko dira

| KATEGORIA | FUNTZIOA | HIZKUNTZ ESKAKIZUNA |
|---|---|---|
| Gerentea | Izaera publikoa | C1 / C1 |
| KOZko orientatzailea | Izaera publikoa | C1 / C1 |
| Harrerako langilea | Jendaurrekoa | B2 / B2 |

| | | |
|---|---|---|
| Soroslea | Jendaurrekoa | B2 / B2 |
| Begiralea | Jendaurrekoa | B2 / B2 |
| Mantentze-lanetako langileak | Berezia | B1 / B1 |
| Garbiketako langileak | Berezia | B1 / B1 |

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea beharrezkoa izango da.

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera eta bestetik lizitatzaileak diseinatutako plan bereziaren bitartez bideratuko du gaitasuna ez duten langileek gaitasun hori lortu ahal izatea.

## 7. BERDINTASUN IKUSPEGIA.

Lezoko Udalak, 2022-03-31ko Osoko Bilkuran, "2022-2026 aldirako Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera eta Tratu Berdintasunerako III. Plana" onartu zuen (XII. eranskina).

Ildo horretan, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legea nahitaez bete beharko da oinarri hauek jasotzen dituzten zerbitzu eta zeregin guztietan, eta bertan jasotako printzipio orokorrek gidatu eta bideratu behar dute kontratatutako zerbitzuen jarduna, hau da: tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; indarkeria matxistaren prebentzioa eta desagerraraztea; dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; generoaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea; ikuspegi intersekzionala txertatzea; ordezkaritza orekatua; lankidetza eta koordinazioa; eta emakumeen ahalduntzea, besteak beste. Horrela, zerbitzua ematean, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatuko dira fase guztietan: plangintza, diseinua, jarraipena eta ebaluazioa. Horretarako, memorietan sexuaren araberako datuak eta kontratazioarekin lotutako jarduera eta zerbitzu guztietan beharrezkoak diren beste aldagai batzuk bereiziko dira. Horretarako ere, zuzendaritza duen pertsonak eta kontratazioen ardura duenak gutxienez 20 orduko berdintasuneko prestakuntza izatea bermatuko da eta langile taldeak gutxienez 3 ordukoa.

Hizkuntzari dagokionez, jarduerak informatzeko eta sustatzeko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan hizkuntza eta irudi ez-sexistak eta estereotipatu gabeak erabiliko dira, bai barne-dokumentuetan, bai dibulgazio-materialetan. Gainera, kirol-jardueran erabiltzen den musika sexista ez izatea bermatuko da.

Bestalde, aukera-berdintasuna bermatzeko tresnak ezarriko dira, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatuko da maila guztietan eta erantzukizuneko postu guztietan, kirolaren eremuan eta partaidetza eremuetan.

Adjudikazioduna, indarkeria matxistaren aurkako protokoloak adosteaz arduratuko da, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista barne, Osakidetzarekin, kirol-arloarekin eta udaletako gizarte-zerbitzuekin eta herriko ikastetxeekin bideratzeak zehaztuz, eta arreta berezia eskainiko die indarkeria matxistari buruzkoei.

Udalaren helburua berdintasunean oinarritutako gizartea sustatzea da, hau da, elkarbizitza oinarri duen gizartea, bereizketarik gabe, tratu onetan oinarritutako harremanak, aukera-berdintasuna eskainiz sexua edozein dela ere. Ildo horretan, esleitutako zerbitzuak sexuen arteko berdintasuna sustatzeko eta indarkeria sexista prebenitzeko guneak izango dira. Erantzukizuna, ahalduntzea eta berdintasunezko harremanak sustatuko dira, genero-estereotipoak eta -rolak baztertuta, eta sexu- eta genero-identitateen aniztasuna eta sexu-orientazioa kontuan hartuta.

Kontua da kirolean dauden oztopoak ezabatzea; emakumeei eta gizonei ziurtatzea kirola egiteko aukera, maila guztietan eta bizitzako etapa guztietan, berdintasun-baldintzetan; osasunari eragiten dioten gaiak kontuan hartzea, emakumeek kirolean parte hartzeak dakartzan erronkak eta gizarte-erronkak oso kontuan hartuta. Horren guztiaren azken helburua da berdintasunezko gizarte bat lortzea, indarkeria matxistarik gabea, non pertsona guztiak askeak izango diren, eremu publikoan zein pribatuan, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartzeko rol tradizionalek ezarritako mugarik gabe, generoaren arabera, eta non berdin kontuan hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeen eta gizonen jokabide, jomuga eta beharrizanak.

## 8. BATZORDEAK.

### 8.1.- Jarraipen Batzordea

a.-BK-AI kirol instalazioen jarraipen batzorde bat osatuko da, maila orokorrean baldintza orri hauen betetzea ziurtatzeko, eta zehazki besteen artean honakoak aztertu eta onartzeko:

- Hurrengo ikasturteko/urteko kudeaketa plana.
- Hurrengo ikasturteko/urteko jardueren programa.
- Hurrengo ikasturte/urteko mantentze-lan, garbiketa, segurtasun eta larrialdi planen aipamena aldaketarik egin behar bada.
- Hurrengo urteko prezio proposamena.
- Hurrengo ikasturte/urteko aurrekontu eta dagokion eranskinen proposamena.
- Hurrengo ikasturte/urteko egutegi eta ordutegi proposamena.
- Aurreko ikasturte/urteko memoria (plan guztietako aipamena jasotzen dituena).
- Aurreko urteko likidazioa.
- Inbentarioa.
- Ustiapenari dagozkion negozio unitate horren kontu ikuskatuak.

b.-Aipaturiko funtzioak betetzeko, Batzordea nahitaez bitan bilduko da urtean ohiko deialdian. Bi bilera horien garaia ustiatzailearekin adostuko dira, urte/ikasturte lan egiteko moduarekin bateragarri izan daitezen (beste ezer adosten ez bada bata apirilaren lehen hamabostaldian izango da eta bestea uztailaren lehen hamabostaldian).

c.-Batzordea beharrezkoa den guztietan bilduko da ezohiko moduan, Lehendakariak, kideen erdiak edota kudeaketa batzordeak horrela proposatzen dutenean.

d.-Batzordea ahalduna izango da, bertan aurkeztutako proposamen, kontu eta memoriak onartzeko edo ez.

e.-Jarraipen batzordeak, ustiatzaileari erabiltzaileen artean asebetetze inkesta bat egitea eskatzeko aukera izango du beharrezkoa aurreikusten badu.

f.-BK-AI kirol instalazioetako Jarraipen Batzordea honako pertsonek osatuko dute:

- Lezoko Alkatea (Batzordeko Lehendakari lanak egingo ditu).
- Kirola kudeatzen duen saileko zinegotzi delegatua.
- Lezoko udaleko idazkaria.
- Lezoko udaleko kontu-hartzailea.
- Lezoko udaleko kirol instalazioetako zuzendaria (idazkari funtzioak beteko ditu).
- Entitate ustiatzailearen hiru ordezkari (instalazioetako zuzendaria horietako bat izango delarik).

**8.2.- Kudeaketa Batzordea**

a.-Instalazioen kudeaketaren etengabeko jarraipena egiteko osatuko da. Batzorde hau, gehienez ere, bi hilero elkartuko da. Jarraipen Batzordean onartutako planak hemen aztertu, zehaztu eta martxan jarriko dira; baita erabiltzaileen edo beste entitateen aldetik etorri daitezken proposamen eta kexak aztertu eta bideratu. Batzorde honen ardura izango da ere bihileko txostenak aztertu eta onarpena ematea.

b.-BK-AI kirol instalazioetako Kudeaketa Batzordea honako pertsonek osatuko dute:

- Entitate ustiatzailearen ordezkari bat.
- Lezoko udaleko kirol instalazioetako zuzendaria (idazkari gisa arituko da).
- Egokia iruditzen denean, Lezoko udal gobernuaren ordezkari bat.

**8.3.- Kudeaketa Batzorde Soziala**

a.-Instalazioen kudeaketaren etengabeko jarraipena egiteko osatuko da batzorde hau ere. Batzorde hau, lau hilero elkartuko da. Jarraipen Batzordean aztertutako txostenen azalpena eman, batzordekideen kudeaketarekiko ekarpenak eta udalaren aurreikuspen edo proposamenak aztertzea izango dira batzorde honetan egingo diren lanak.
Batzorde aholku-emailea izango da.

b.-BK-AI kirol instalazioetako Kudeaketa Batzorde Soziala honako pertsonek osatuko dute:

- Lezoko udal gobernuaren ordezkari bat.
- Entitate ustiatzailearen instalazioetako zuzendaria.
- Enpresa komiteko ordezkariak.
- Lezoko udaleko kirol instalazioetako zuzendaria (idazkari gisa arituko da).

## 9. BETEBEHAR ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Adjudikazioduna, kudeaketaren titularra den aldetik honakoa bete beharko du:

a.-Lezoko Udalak onartutako BK-AI kirol instalazioen erabilera araudia (III. eranskina; 2021/03/25 Osoko Bilkura) jarraitu eta betetzea.

b.-Zerbitzua ematea, finkatutako baldintzetan, bere osotasunean zerbitzu kontratua dirauen bitartean. Esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du kontratu berria sinatzen den bitartean. Adjudikaziodun berriak bere egin beharko ditu eta bermatu beharko du ustiaketa berria hasterakoan indarrean dauden programa, jarduera eta erabiltzaileekiko konpromisoak (hiruhileko ikastaroak, alokairu luzeak adb.). Hauetako bakoitzaren amaiera epeak eten egingo du betebehar hau.

c.-Azpiegituren, instalazioen eta kirol ekipamenduen erabilera egokia, instalazioak garbi eta osasun-egoera onetan mantenduz, baldintza teknikoen orriaren arabera.

d.-Instalazioaren jabetza eta bertan ematen diren zerbitzuen izaera publikoa da; hau honela, antolatzen den edozein jardueren zabalkundean entitate kudeatzaileak jabego publikoa azpimarratuko du, hori horrela, instalazioan, langileen arropetan edo egiten diren kanpainen euskarrietan (fisiko zein elektronikoak) nagusi izango da udalaren irudi korporatiboa. Esleipendunak bere irudia erabiltzerik izango du ere aipatutako horietan, beti ere kontuan izanik gehienez ere, udalaren irudiaren maila berean egongo dela. Kontratu honetan ustiatu beharreko zerbitzuak udalak ematen dituen zerbitzuak dira.

e.-Lezoko Udaleko kirol instalazioetako zuzendariarekin harremana eta koordinazioa izan eta gobernu taldearen kirol, kultur, euskara eta berdintasun politika errespetatzea.

f.-Esleipendunak bermatuko du desfibriladorea erabiltzeko formazioa duen langileen presentzia uneoro instalazioetan.

g.-BK-AI kirol instalazioen eta kirol instalazioetako erabiltzaileen kudeaketa (altak/bajak/sarrera-irteeren kontrola …) eta sarbideak kontrolatzeko software eta ekipamendu informatikoa (beharrezkoa balitz) jartzea.

h.-Aldi berean esleipenduna saiatuko da online eta elektroniko baliabideak erabiliaz erabiltzaileen kudeaketa harremanak ahalik eta papera gutxien erabiliz gauzatzen eta bertaratu gabeko tramiteak errazten.

i.-Zerbitzu karta bat idaztea, bai Lezoko Udalarentzat eta bai instalazioaren erabiltzaileentzat; bertan ekipamendu ezberdinen konponketa epe, erreklamazioen kudeaketa eta zerbitzuari buruzko ardurei buruzko konpromisoak jasoko dira.

j.-Esleipendunaren ardura izango da, 5. ataleko f barruan aipatutakoaz gain, BK-AI kirol instalazioetan eskaintzen diren zerbitzuen, prezioen, baldintzen eta abarren berri zabaltzea, gutxienez urtean behin.

k.-Adjudikaziodunak errespetatu egin beharko ditu Udalak adierazten dizkion konfort-parametroak instalazio ezberdinetako tenperatura eta hezetasun mailei, baita ur bero sanitario eta igerilekuetako tenperaturei dagokionez (autobabes planen kontra ez doazen bitartean).

l.-Estatu, Eusko Jaurlaritza edo Foru Aldundiko industria, barne, osasun edo beste edozein arloetako eskakizunak betetzea homologazio, dokumentazio eta planen burutze, galdara aretoen liburu eta egun eta etorkizunean eska daiteken beste edozein betebeharrei dagokionean.

m.-Udalak instalazioak ikuskatzerik izango du une-uneko egoera ezagutzeko.

n.-Ustiatzaileak ezingo du inolako obrarik egin ezta ekipamendurik aldatu ere, Lezoko Udalaren berariazko baimenik gabe; ezta bere esku jarritakoa besterendu edo zergapetu.

ñ.-Erantzukizun zibileko 1.000.000 euroko aseguru-poliza bat formalizatzea, higiezin egoera eta okupaziotik, zerbitzuen funtzionamendutik eta jardueraren garapenetik eratorritako hirugarrenen kalteetarako.

o.-Zerbitzua ematen hasi baino lehen aseguru polizaren kopia aurkeztu beharko da udaletxean.

p.-BK-AI kirol instalazioetan publizitaterako eremuak egon ahal izango dira (Udalak onartu beharko ditu). Instalazioetan egingo den publizitateak Lezoko Udalaren baimena eduki beharko du, bermatuz honela, udalaren konpromisoak eta indarrean dagoen araudia betetzen direla.

q.-Publizitate honek sortarazitako diru-sarrerak esplotazioarenak izango dira, Lezoko Udalaren ekitaldi eta konpromisoak, partida federatuak eta ekintza puntualak salbu non kontratatutako publizitate espezifikoa antolatzailearentzako izango diren.

Adjudikaziodunak kontratuaren eperako bakarrik kontratatu ahal izango du publizitatea.

r.-Zerbitzu kontratuaren epea amaitzen denean, kirol instalazioak kontserbazio eta funtzionamendu egoera egokian laga beharko ditu.

2025ID170012

Lezo, 2025eko azaroa